

MERCABILBAO MERKATU JASANGARRIAGORAKO BIDEAN DOA, 2021EAN 257.100 TONA BAINO GEHIAGO MERKATURATUTA

- **Fruta eta barazkien sektorearen merkaturatzea historiako marka gorenetera heldu zen, 234,119 tonarekin, aurreko ekitaldian baino % 0,2 gehiago.**
- **Arrainaren eta itsaskien kasuan, merkaturatzeak % 2,44 egin zuen behera, eta 22.489 tona merkaturatu ziren.**
- **Mercabilbaok bat egiten du Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak lortzearekin, zero gosea lortzeko erronkekin, kontsumo osasuntsu eta arduratsua bultzatuko duen elikadura-kulturarekin edo ingurumenaren aldeko ekintzak prestatzearekin.**

Basaurin, 2022ko ekainaren 9an.- 50 urtez egindako bidearekin eta ziklo berri baten hasieran murgilduta, Mercabilbaok aurrera jarraitzen du gero eta jasangarriagoa den kudeaketa-eredurantz, Iberiar Penintsulako iparraldeko elikadura-hornidurako erreferentziatzeko zentroa izaten jarraitzeko. 2021eko itxierako merkaturatze-datuek, 257.194 tona guztira, hala erakusten dute.

2021eko jardueraren balantzea Batzar Nagusian aurkeztu zen. Bertan elkartu ziren Juan Mari Aburto Bilboko alkatea buru den Gobernu Kontseiluko kide guztiak.

Sektoreka, fruten eta barazkien salmentak hazten jarraitzen du, eta merkaturatzeari buruzko datu historikoak lortu ditu: 234.119 tona, hau da, aurreko ekitaldian baino % 0,2 gehiago. Frutei dagokienez, laranjaren (34.407 tn), bananaren (25.547 tn) eta sagarraren (21.427 tn) salmentak nabarmendu behar dira. Barazkiei dagokienez, patataren (16.411 tn), tomatearen (16.915 tn) eta tipularen (5.261 tn) kontsumoa nabarmendu behar da. Iaz merkaturatutako fruta eta barazki guztietatik, gehienak estatuan ekoiztutakoak izan ziren, eta gainerakoak inportatuak.

Arrain, itsaski eta itsasoko produktu izoztuen merkatuak, bestalde, 22.489 tona bildu zituen guztira, hau da, 2020an lortutako datuak baino % 2,44 gutxiago. Atzerakada hori arrain freskoaren eta izoztuaren salmentan izandako beherakadak eta herritarren erosteko eta kontsumitzeko ohituren eraldaketak eragin dute. Itsaskietan, berriz, merkaturatzeak zertxobait egin du gora aurreko urtearen aldean. Aipatzekoa da Bizkaiko Golkoko portuek jarraitzen dutela arrain freskoaren hornitzaile nagusiak izaten Galiziaren aurretik; bitartean, Galiziako portuak dira itsaski gehien hornitzaileak.

Fruta eta barazkien eta arrain, itsaski eta itsasoko produktu izoztuen prezioak aurreko urteetako antzekoak dira.

Balio anitzeko sektoreak elikadura orokorreko produktuak biltzen ditu, hala nola arrautzak, haragiak, esnekiak eta elikagaiak orokorrean. Guztira, 586 tona pilatu zituen, aurreko urteetako zifrak nabarmen jaitsiz, banaketan aritzen ziren biltegi batzuen jardura-aldaketaren ondorioz, batez ere.

Mercabilbaok Basauriko Artunduagako zelaietan errendimendu betean jarduten duenetik urrezko ezteiak ospatu dituen urtean, elikagaien hornikuntzarako merkatuak mila pertsona baino gehiagori eman die lana, % 100 inguruko okupazioari eutsi dio eta guztira 110 enpresak betetzen dute euren lana 13 hektareako azalera duten instalazioetan. 2021eko abenduaren 31rako, Elikagai Unitateak 621.523 ibilgailu hartu zituen.

Kudeaketa-eredu jasangarriagoa

Gero eta merkatu jasangarriagoa lortzeko ahaleaginean, Mercabilbaok konpromisoa hartu du Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), hau da, Nazio Batuek pertsonen, planetaren eta oparotasunaren alde 2030erako ezarri duten ekintza-planarekin.

2021. urtea hausnarketa-urtea izan zen Elikagai Unitatearentzat, eta mundu osorako markatutako 17 GJHak txertatu zituen bere kudeaketa-ereduan; izan ere, egunero-egunero ari da lanean, bere errealitateen, ahalmenen eta garapen-mailen arabera.

GARAPEN JASANGARRIARI BURUZKO MERCABILBAOREN HELBURUAK

- Merkatu Sareko handizkako eskaintzan tokiko eta ziklo laburreko ekoizpenen presentzia areagotzea, ekoizleek eta kooperatibek merkataritza-katean inplikazio handiagoa izan dezaten.
- Sasoiko elikagai freskoen eta ekoizpen ekologikotik datozenen eskaintzaren hazkundera sustatzea.
- Txikizkako merkataritzari eta ostalaritzari zuzendutako zerbitzu logistiko integratuko eta banaketa-kapilarreko ekimenak sustatzea, garraioa eta erregaien kontsumoa murrizteko eta hirietako trafikoa hobeto kudeatzeko.
- Dieta mediterraneoari eta Espainiako elikagaiei lotutako elikagai osasungarrien kontsumoa sustatzeko elikadura-kulturako ekintzak koordinatzea.
- Merkatuetan fruta, barazki, arrantza-produktu eta haragien eskaintzan ahalik eta barietate eta kalitate handiena egotea bultzatzea; merkataritza-formatu guztietan Merkatu Saretik datozen elikagaien presentzia sustatuz: denda espezializatuetan, supermerkatuetan, hipermerkatuetan eta merkataritza elektronikoan, bai eta jatetxeetan eta erakundeen kontsumoan ere.
- Elikagaien hondakinak murrizten lagunduko duten jarduketak sustatzea, bai eta Merkatu Sareak Elikagaien Bankuekiko eta antzeko beste erakunde batzuekiko ekintza solidarioetan inplikazio handiagoa izatea ere.
- Elikadura kateko merkataritza-zikloaren fase guztietan berrikuntza teknologikoa eta eraldaketa digitala bultzatzea.

Memoria osoa hemen: www.mercabilbao.eus

Informazio gehiago:

Eneriz Urrutxurtu

BLOK Comunicación Estratégica

637 55 83 52

eneriz@biokcomunicacion.com